

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

5503

AGINDUA, 2019ko azaroaren 8koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez iraungita deklaritzen baita Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzako lanpostu bat –goi kargudunaren idazkaria, 520010 kodea, 66. dotazioa– izendapen askez betetzeko prozedura.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2018ko urriaren 1eko Aginduaren bidez (2018ko urriaren 10eko EHAA), Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzako lanpostu bat –goi kargudunaren idazkaria, 520010 kodea, 66. dotazioa– izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragarri zen.

Hamabost egun balioduneko epean, agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita, prozeduran parte hartzeko 33 eskaera jaso ziren.

Izendapen askeko prozedura ez da ebatzi, ebazteko ezarritako epea amaitu den arren.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikuluan arabera, Administrazioa behartua dago ebazpen espresua eman eta jakinaraztera prozedura guztietan, edozein dela ere prozedura hasteko modua. Dagokion prozedura erregulazten duen arauak ezarriko du ebazpen espresua jakinarazteko gehieneko epea. Epe hori gehienez ere sei hilabetekoa izango da, non ez duen lege-mailako arau batek epe handiago bat ezartzen edo Europar Batasuneko Zuzenbideak hala aurreikusten ez duen. Prozeduretako arauak ez badute ebazteko gehieneko eperik ezartzen, hiru hilabetekoa izango da epe hori.

Aipatutako artikuluan esaten den bezala, prozedura iraungitzen bada, ebazpena gorabehera hori deklaratzeko izango da, zer gertatu den eta zer arau aplikatu behar diren azalduta.

Hori dela bide, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Iraungita deklaratzeko Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzako lanpostu bat –goi kargudunaren idazkaria, 520010 kodea, 66. dotazioa– izendapen askez betetzeko prozedura, eta jarduerak artxibatzeako agintzea.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke eman duen organoari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta biharamunetik hasita. Bestela, administrazioerikiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Administrazioerikiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

2019ko azaroaren 28a, osteguna

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean hartuko du indarra agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroaren 8a.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.